

Aran Garcia-Lekue / CV laburtua

Fisika Zientzietan lizentziaduna, eta Materialen Zientzian eta Ingeniaritzan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Doktorego osteko egonaldiak egin zituen Liverpooleko Unibertsitatean (Erresuma Batua) eta Lawrence Berkeley National Laboratory-n (LBNL) Berkeleyn (Estatu Batuak). 2007an, International Physics Center-en (DIPC) hasi zen Fellows Gipuzkoa programaren bitartez eta, 2012an, Ikerbasque ikertzaile izendatu zuten. 2015az geroztik, Nanozientzien masterreko irakaslea da UPV/EHUn. Nazioarteko kolaborazio ugari ditu abian eta, Mercator Fellow ikertzaile aritu da Alemaniako Kieleko Unibertsitatean eta ikertzaile gonbidatu, LBNLn Berkeleyn eta DTUn Copenhagenen.

Azken urteetako bere ikerketa-ildo nagusiak elektronioa molekularren eta dimentsio baxuko materialen arlokoak izan dira, zehazki, grafeno-nanoegituren gainekoak. Izan ere, nanoelektronikan eta konputazio kuantikoan erabiltzeko etorkizun handia dute material horiek. 2018an, bere ikertaldeak grafeno nanoporotsuari buruzko lan batean hartu zuen parte, eta, horri esker, hirugarren saria jaso zuten 2018ko Zientziaren Abangoardia Sarietan eta Kimikako Ameriketako Elkarteak (ACS) 2018. urteko Molekula izendatu zuen.

Dibulgazio zientifikoarekin eta emakumeek zientzian duten papera ikusaraztearekin duen konpromisoa agerikoa da askotariko publikoari, batez ere, gazteei zuzendutako jardueretan parte hartzen baitu maiz.